Euzkadi

ERIJETATIK

ZORTZITIK-ZORTZIRAT

LEKEITIO

Primadera huntan ikusi behar ginuen [illegible] aro guzietarik: aspaldi luze huntan [illegible] gintuen bero handienetarik, kasik ikaseko hotzak arte. Jainkoari eskerrak [illegible]era, horren gatik, eritasun handirik ez [illegible] Eskual-Herrian sartu. Ez da dudaz Arantzazu eta Sokorriko Ama Birjina lagundu gaituela.

ONIANE-LOHITZUNEN

Iñbete hunen hemezortzian ginuen hemengo Eskualdunak "Gurutzadaren Besta" [illegible]nen. Itsas-hegiko hiri polliterat Churi, Bachenabar eta Lapurditik bildu den [illegible] saldoa. ¡Bortz mila hurbil! Gu beraz han kausitu direnek gochiki nigar egin [illegible]ute haur horiek eliza nikusi dituztelako beren arrosa churi eta gorrien zerako [illegible]ari eskaintzen, eman-ahala guziak kantatz ari zirelarik:

Yainkoaren Ama,
Ama guziz ona,
Zaitzagun maita
Bethi, bethi...!

Egiazki, barrizko bihotza duke holako [illegible]kizun batek osoki inharrosten ez duen [illegible]ristinoak! Batera ez baita beraz harri[illegible]eko, arratsaldean, haur horiak beren jaitsi pollitetan Sakramendu Sainduaren [illegible]tzinean karrikaz-karrika ibili direlarik [illegible]ntus eta othoitzean, itsasoko asaldura [illegible]ragarrienek gogortu arraintzale zaha[illegible]rek berek mokanesak sakelatik athera[illegible]u bazituzten nigar chorta baten begian [illegible]ikatzeko! Gizon gaizoak! Haur mai[illegible]ak!

Ez da dudarik "Gurutzada" horrek ongi [illegible]ndia egin duela jada, eta handiagoa egi[illegible]n oraino ondoko egunetan, gure Eskual-[illegible]errian hasirik herri ephelenetan barna! [illegible]ora Gurutzadako haurrak eta Gurutzada [illegible]amatu duten elizako aintzindari kartsuak!

[illegible]AIAK HERRIETAN

Egun hautan hemen gaindi herriz-herri [illegible]bil litakeenak jai hainitz ikus lezake. Do[illegible]iane, Sempere, Hiriburu, Hazparne, Mau[illegible]e eta bertze zenbat herri eder airean di[illegible]agu, musikaz aseak, pilota partidez cho[illegible]atuak. Agian jondoni Joani-Batichta, Pe[illegible]ri eta Paulok ez diote sobera behatuko [illegible]ai horiek egiten diren moldeari, bainan [illegible]ai chedeari!

PILOTARIAK

Bethi aintzinat doa pilotako chapelgoa [illegible]gazteen artean. Bi talde gelditzen dire orai [illegible]chutik, Eskual-Herrian nor den nausi ja[illegible]kin dezagun, Bidarte eta Bonibane-Garazi: Ibarburu eta Berhoa alde batetik, Berge[illegible]rot eta Appeceix bertzetik. Eskuak ongi [illegible]baditu Ibarburuk, itchura guzien arabeza Bidarte izanen da chapeldun.

HITZ BAT SALEGUY PILOTARIAZ

Guziek dakitena hau da: hemen gaindi [illegible]dabiltzan pilotarietan, Saleguy lehen-lehenetarik dela, lehena ez bada. Bizkitartean azken dembora hautan zer-nahi partida galdu du. Zertako? Jainkoak daki. Eskuak ez ditu menturaz arras ongi edo osagarria ez luke nahi-bezalakoa! Zorigaitz handia... beretzat, ez baita hemengo jendeak Saleguren kontza erraten ez duenik. Holako pilotariak ez luke behinera plazarat agertu behar trempu hoberenean baizik. Egiazki [illegible]zin iretsia da Arcerekin gal dezan Damestoy eta Inazioren kontra, Arce ederki [illegible]rizanik bizkitartean. Atzar hadi, muthila!

AINXUBERRO

Joanden asteartetik hunat Milafrangako [illegible]ere herri maitean dugu Ainxuberro EUZKADI hunen lankide ohi, bartagoko jaun [illegible]ezpiku ospetsua, sor-lekuko aire garbi [illegible]ta onaz bulharran bethetzerat ethorria. Yainkoak hala nahi badu, norbei joanen [illegible]aio helduden astean bi solasaldiren egi[illegible]rat, gero egunkari maite hunen chehe-che[illegible]heki oro errateko chedearekin...

HAUR PRODIGOA.

MAÑARI

AUTESKUNDIAK

Garrantziko egunik izan ba'dogu, iñoz[illegible]korik garrantzitsuena, gaurko eguna dala [illegible]ango neuke. Uzkurtza (erlekiño) ta Abe[illegible]rrija'ren ona gaurko gora-beran dagolako. [illegible]Eskertarrak edo eskumatarrak auteskun[illegible]dia irebazi; eurentzat edo geuretzat gurendia. Egunaren garrantzija, orretan dago ba. Mesede andijak lortu edo oker andijak [illegible]ekarriko ditun egupa. Ta, gurendia lar[illegible]zeko gizonak eta gizonak biar dira; oger[illegible]eko batzuen truke salduko eztiran gizon [illegible]intzoak. Errijaren onerako aurkestu diran [illegible]ldungai (diputadugai) katolikuari botua [illegible]emongo dautsoen kistar zintzuak biar dira.

Gizon-mutillok, zeuen autarki edo botua [illegible]izon onari emonaz, zeun kistar-biarkuna [illegible]bete baño besterik eztozue egingo. Norbai[illegible]ek esango dau.

—Eta onenak zeintzuk ete dira? Batzuk [illegible]a, ta beste batzuk ori, egunokaz geure [illegible]buruok ondo nastuta darabilguz. Biderik [illegible]onena ein dan batek baleki... Nunbaitera [illegible]abijetako be...

—Oindiño be orretan zagaz! ¡Olakorik! Etzara gomutetan, lengo illian, or errije[illegible]tan geure erlekiñua-zelango jazarkunde go[illegible]rrijak egin eutsoezan; eta oindiño be egi[illegible]en diarduela? Baietz diñozu? Ta ori guz[illegible]tijori ondo dakizula be, zeure botua nori [illegible]emon pentsetan zagoz...? Ona ta txarra [illegible]argi-argi dakuzuz ba; onetan ezpairik ez[illegible]tago. Bide bi baño eztagoz da. Eskumia [illegible]a eskerra.

Uzkurtza (erlekiñua) ta Euzkelerrijaren [illegible]onaz batera zeure ume ta sendijaren ona [illegible]ortu gura ba'dozu, eskumako bide ederra [illegible]artuaz, zeure botua euzkotar katoliku zin[illegible]zo oneiri emon.

Agirre ta Lekube'tar Joseba Andoni jau[illegible]ari.

Orexa ta Elosegi'tar Markelin jaunari. Gizon zintzo oneik, Euzko-Araudija al[illegible]deteko aurkestu dira. Ta araudi orretan, Eleiza ta Aberrijaren eskubiiak sartzen di[illegible]ra. Eurori zeure botua ukatziaz, uts andi[illegible]an jausi zindekez; ba egun gorrijen ba[illegible]ik ganian baletoz, zeu be eskertarrak le[illegible]gez errudun izango zintzakez. Ta, oindi[illegible]ño, zeure errua, areena baño be baltzagua [illegible]izango litzake; katolikua ta euzketarra [illegible]izanik, txarrakaz batuta zeure anayen aur[illegible]ka egingo zendukelako.

Ya ba, danok, gaur gizon portau; etor[illegible]kiaunaren errurik izan eztagizuen be. Ta Jaungoikua ta Lagi-zarra'ren aldez, lana sendo egin.

JUAN-ETORRI

Emen egun batzuk igarota, astartian juan zan Billafranka ra Simon Aita, Karmeldarra.

—Ermu tik etorri zan Zugatzagoitia'tar Eupeme.

—Algortatik, Magunazelaya tar Joseba emaztiaz.

—Egun batzuetan emen aur'kitzen da Solaun dar Koldobika mutilla.

JON DEUNA

Deun andi onen egunian, "Gara'torre"-ko ermitan meza abestua emon zan. Deuna'ren bizitza, Azpitarte'tar Gergarri Durango'ko abade jaunak azaldu euskun. Berbaldija, atsegiñez entzun gendun; gauza polit asko esan eban da Mezia, "Lusterrijo"-ko Errupiñ ek eta "Telleria"-ko Sabin mutillak abestu eben. Eta ez edozelan be.

Eurija, urijola antzera zan arien, menditxu aretan lagun askotxo batu zan. Batez-be, artzain mutillak.

MAÑARIKO.

(x) Lekurik ez ta atzeratua.

ARGENTINA'TIK

GURE ZANTZOA

Emeko abertzale guztiyon aldez egingo da laster laster zantzo aundi, zantzo zoli bat Euzkadi'n; zantzo luze ta sendo ta indartsu ta eder ori, gure zantzoa da, Argentina'ko euzkotar zintzo guztiyena, gure agurra, gure bostekua, ta gure besarkadia. "Ujuju... ya ya ya ya ya ya... ja... jai".

NUN EGINGO DA?

Neure ustez, Bibao'ko Euzko Gastedi'yan egingo da ta gero kalian, zeyan, bultzian bebilian, zelai ta ibarretan, mendi aranatan, uri ta basetxietan; Euzkadi'ko txoko maite geyenetara elduko da gure zantzuan oyu pozgarriya.

¿NOK EGINGO DAU?

Zabala tar Josuk. Berau da, ondo dakizube, nor dan; Gernikako zugatzaren adarra Kantauriko itsasuan olatua, euzkomendietako burdiña. Auñe-mendi-galurreko edurra ta ama euzkerean seme kutuna; askatazun zale gogorra, bildur-bako gizon errimia, gogo aundidun euzkotar garbia.

ZANTZOLARIYA BADA, BAÑA...

Izlari bikaiña bere bai; sua, txingarra, laba goriya da Zabala, abertzale gauzak azalduten; entzu-yozue ta gero esan alantxe ezpada... Baita bera da idazkaria, berton Buenos Aires'en, izan da A. N. V.-ko idazkaria ta egon dan arte guztiyan, ondo ta gogo aundiaz bete dau bere egintzia.

ZABALA'N OMENEZ BAZKARI BAT

Bagilla'n 7'an, geitu geuntzon Zabala maitiari, geugaz baskaltzera etorteko ta "mutillak" agertu yakun Zabala; bere onduan bildu giñan ainbat abertzale, bazkari bero ta gozo-gozo bat yateko gogo onagaz.

Zazpirak Bat'eko gela zabal ederrian gengozan ta gugaz batera poztuteko etorzan Otaegi jakintsu ta ospetsua, Arrezife'ko Denak Baten aldez, Etxaniz Lendakaria ta beste iru lagun euzkotarrak.

BAZKARIYA

Yaten asi baño lenago onetsi eban maya, Aritxuluaga abade jaun agurgarriyak, onesmen ostian entzun zan zantzo eder bat ta gero yan, mutillak yan. Ta zelango bazkaria, a zan bai baskari gozua ta ugariya. Idiazabal'eko babarrunak sayeski ollaskua yanala, lebatz ederra, mai-askenak zeinbat gura, akeita, koñak eta eztait zer geyago.

Baskal-ostian beste zantzo bat, axe bai eder ta zoliena. Gero Zabala jaunaren itzaldiya, beroa, sutsua ta aberatsa; Otegi jaunak... a zein ederto; yuango al da noz edo noz gure Euzkadira ta or entzungo dozube gauza ona. Biana jaunak ondo ziatz eta ederto ta polito erantzun ta esan eutsazan Zabalari geure aldez zer-esanak euzkotar maitiari.

Gomutaki polit bat emon geuntson Zabalari ta bertan jarri genduzan geure izen abizenak.

ARRECIFE

Amaitu baño lenago aitatu biar dot pozik Arrecife'ko euzkotarren lendakari Etxaniz jauna; gauza ederrak esa-euskuzan; ango euzkotar zintzoan agurra; Naparro'kua da semez Etxaniz, Etxalarreko uso-artian yayo ta azia ta uso antzian egazlez etorri zan pozarren gure bazkarira, gure jai ta maitetasun kutunera.

Egun ontan bildu giñan Zazpirak Bat'ean, iya iya Euzkadi guztiko euzkotarrak; Zuberoa, Naparro, Gipuzkoa, Araba ta Bizkaitarrak; abestu genduzan geure abesti eder asko, entzun ziran geure soñuak; a izan zan yaya, a poza ta a anaitasun bero ta estua. Zuberotar mitiak esate eban: gure alkartasuna lango alkartasunik ezin da sortu beste iñungo gentian artian; gure poza ta alaitasuna aundiya da ta iñok bere ezin dau sortu ez osotu beste ainbeste.

Agur Zabala. "Ya ya ya ya ya u... ja... ja... ja... jai...".

IÑAKI.

Rosario'n bagila'n. 9.

BERMEO'TIK

ITZALDIJAK

Egubastena ospatu diraz izagarrita egon ziran itzaldijak. Basterretxea'tar Pantzeska Orexa'tar Markelin, Agirre'tar Joseba Andoni ta gure bertsolari ospetsuba ziran izlarijak.

Gogatsu arkitzen zan errija Getxo'ko endorian itz sutsuak entzuteko, ta alan agertu zan pelota tokiya notintzaz beterik geiyago ezien, nere ustez egon ziran bi onei notin bai, izlariyak txalo sutzuak irabazi eben.

Getxo'ko endoriak alde guztietan entzun eben txalo ta gora ugarijak.

JON DEUNAK

Jon deuna egun-aurrian su ta gar ikusten zan txaide guztietan ekandue dalez Jon deunan irudija dagon txaidean "erromeri" polita ospatzen da txistu soñuan saratara jantza zantzo ta abar.

Batzoki aurrian be zer ikusi ta zen entsun asko egonda, euzko-bijotzak poztutek geutarrak ibilli ziran s uandiyari biraka sokan dala ta dana zan alaitasuna abestiyak, santzoak ta uyuyun utsik etzan egon sue amaitu zan ta jolas guztiyak onegaz batera erre ziran erreteko egon ziran pizti guztiyak? ¿ez ete da lotu geiyago...?

¡Jon deunak! egun zoriontsua, euzkousaiñ utzesko egun alaia benetan ta gaztien amets zoroa, aurretariyez asten diraz praka zuriyak garriko ta zapi margodunak gertatzen egun onetarako gertu euki daiyen.

Ta eldu zan egun au, ta goizaldean eneban asmaten santzorik ez uyuyurik, esaten neban ¡ze arrayo! gertatzen da, urten neban leyora ta ¡agur aurtengo Jon deunak! esan neban euriya zan txipli-txapa ta neure praka zurijak, garriko ta zapi margodunak gorde neban, datorren urterarte, esanda biozkada andijagoaz.

ARRANTZALE.

ORDUNA'TIK

Juan dan larunbatean, Lili'tar Erramon yaunak egin suan Batzokian itz eginkizun eder bat eusko-ikaskintzaren gañean. Argi erakutsi euskun zer bideri jarrai bear diogun aberri onek emon dituen seme argi asko txandonetik asi ta itxazo etara gudaroste gai guzietan ezdagola begiratu besterik emengo olaetara aurrebidean aurrerakuntzan abendarik lilluratuena gure ele berdiñik gabeak zenban begirale danekon atze erriko jakintsuen artean oso txalotua iran zan.

Deun Jon egunez genduken bezela egin iragarrita ziran Estatuto aldesko itz eginkizunak ainbat atsekabe igaro ta gero emengo agintaritxuekin gaur bai ta biar ezetz esaten duten onekin zauri etxeko makopelan ospatu zan aurkez laria. Badillo'tar Andoni gazteak itz aldi laburta sutsu batekin jarraitu sion. Abrisketa gazteak onen itz bero ta sutsua esanselken eskuan biotzesuala egiten guala ¡ze maitetasunarekin! Bigarren Aranzadi onen asiera ta amaiera bardin aita onarengandik daukasu espala ezagun desun bezela irugarren. Urkiaga onek gure arrekoen zintzo tasun ta oker bideak edestu euskun obeto esin besela gausa askori ukitu utson danak argi ta garbi azaldu ni enaiz gai araldubieka onon itzeginkizun ederraren argibidea emaleko ango txalonek etzeuken amairik askori begietatik nigarra. Oldoztu irakorlea zelako itz sakonak esango zituen. Oatea ondo ta beterik. Laz niaz espresibas gracias al veterano y consecuente abertzale Aldai'tar Kepa en nombre de la Junta Municipal por haber puesto a nuestra disposición su terraza para tribuna y su quinta para el público.

Atzo edukidu alaba bat geyago Madariaga'tar Txomin en emazteak egingo goizean esan dit euskel ixen batekin ugaran bear dabela. Edurne edo Garbiñe edo olako en batekin oono egiña.

LOIRIK GABE.

EGUNEKUA

EUZKADI'TIK

AUTESKUNDEAK

Eusko-lege-gaiaren gurenda andia iran da. Gobernutar amorratuak, euskotar es diranak, aleginak eginda bere, ta edolako ta ozta irabazi dabe Bizkaiko uri-buruan, lardaska ta zikinkeria euren alde ebela, oz. Bizkai enparauan ordea, guztiak atrapa doguz euskotarrok. Eta Bizkai osoan bost aldun lauren aurka, ta amar milla autarki ganez. Gora Bizkaia!

MARITIRI BI

Gipuzkoan bere geutarrak irabazi dabe amar autarkiz. Ba dira erri andiak esaterako Aizkoiti ta Ataun guzti guztiak, batek utsegin barik, eusko-legeari autarkia emon deutsoenak. Gora Gipuzkoa!

Baina tamala! Gizon bi il deuskuez, egitan martiriak, ez Jaka'koak baizen binoiak, gizon zindoak baino. Esanik itzi gendun, Ugarritza gizagaxuaren agiaren autzekorik yazo ez eiten...

Il dira: Yainkoaren bikea nbegoz. Baina gizon orreik merez; dabe goratzarre itzalgarri bat. Orreik dira gure martiri egiazkoak eta zindoak.

Eibartar batzuk "de la ciudad ejemplar democrática a la española" tarrantak betean yoan ziran Bergarara auteskundeak eragozten. ¡Viva la democracia liberal!

Eibartar bat asi zan zarataka, ta ekin eutsoenenean igesari euron eutson, eta pistola yausi yakon.

Bazkal-ostean, eibartarrak demonikratikuak gogorrago asi ziran, eta biraoka ta makilaka yardun eben alde bietatikoak. gogorrago asi ziran, eta biraoka ta makilaka yardun eben alde bietatikoak. Laster entzun ziran tiroak. Bat zerraldo geratu zan. Ordu erdirako illa zan.

Gero ta geiago biztu zan yentea, ta errepulikanuak, euren batzokira sartu ziran.

Arrastirian errizainen babesean itzuli ziran Eibartarrak eurenera.

Gorrotoa eibartar landubageko demonikratiku españiar iguingarri orreentzat.

NAPARROAN

Emen bere eskumatarrak nagosi askoz. Getxo alkateak ordekotasun bi daukoz, bestea Bizkai'tik, eta bat itzi bearrean aurkitzen edo da, beste baten lepoan.

ARABA'N

Baltza atara da nagosi ta bestea zuria. Dana dala, amalau aldun ba doguz legezar aldekoak, bederatzi baltzen aurka.

PRIETO MADRIL'A

Asarre-bitsa ta ortz-karraska dariola yoana dogu Madril'a, etorri zanean abegi ona egiten ozta lagun batzuk urten yakozalako.

¿Zer esan dau? Lengoan komentuairi sua emoteko bera aurka atara zala, baina orain berak aginduko ebala su emotea. ¡Democracia, cultura! Basati landubagea!

"JAUNGOIKO-ZALE"

Billa-bidea:

¡Zintzo yokatu!—Gama.
Idazti barri bat.—Otarka
Gaztientzako.
Izki mizki.
Sukalde basterrian.—J. B
Au, ori ta bestea.—G.

Etxeko gora-berak.

Aurtengo uda-ikastaldiak.—Lizardi
Egunekoa.
Katoliko izparrak.—M'tar G.

Irudiak:

Tabira (Durango): Eleizia'ren ikuspena.
Gernika. Eusko basetxe ereduak.

ESPANIA'TIK

AUTESKUNDEAK.—BALTZAK NAGUSI

Jakiña, baltzak baino e zdiran tokian zuriak ezin irabazi. Gorri amorratuak edo radikalak izango ei dira nagosi urrengo Batzarretan.

ALCALA ZAMORA'K

Diñianez, errepulikanu-sozialistak atara dabe Españian aldrarik andiena. Jaun au berau askoz atara ei da aldun.

Fábrica de Boinas
"La Encartada"
(Unica en Vizcaya)



Vista de la fábrica en Valmaseda

Oficina: ELCANO, 16.--Teléfono 13.367.--BILBAO